

GURE ENPRESARAKO ALIANTZAK

Alde batetik, baliabideak eskuratu ahal izateko ez genuke aliantza berezirik egingo hornitzaileekin baina eskaerak hilerok egingo ditugu eta horri esker hornitzaileek beherapenak egin liezazkigukete.

Bestalde, gure proiektuak aurrera egin dezan, animatzaileak beharko ditugu. Animatezaileen funtzioa umeeekin arratsaldeak pasatzea izango da, haiekin jolastu eta tailerrak egitea. Horrez gain, tailer bereziak eskaini ahal izateko, gai horri buruzko espezialistak, ipuin kontalariak, pailazoak, dantzariak... beharko ditugu.

Horrez gain, Urkide, Landazuri eta Niño Jesus ikastetxeekin harremanak egingo genituzke. Bertan gure jarduerari buruzko kartelak eta eskuorriak banatuko genituzke.

Azkenik, guk alokatuko dugun lokalaren jabearekin hitz egin beharko dugu. Gure asmoa bertan obrak egitea da, lokalean nahi ditugun tailerrak egin ahal izateko, baina horretarako jabearen onarpena behar dugu.

